



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2021ko uztailak 27

Vitoria-Gasteiz, 27 de julio de 2021

Lehendakaritza

JAURLARITZAK ONARTU DU EUSKAL ETXEENTZAKO LAGUNTZA-DEIALDIA, 902.305 EURO EMANGO DITUENA

Eusko Jaurlaritzak bide eman dio Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko Euskal Etxeentzako eta euskal etheen federazioentzako eta konfederazioentzako diru-laguntzen 2021eko deialdiari. Diru-laguntza horiek Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiaren bidez banatzen ditu. Orotara, 902.305 euro bideratuko ditu laguntza horietara.

Laguntzaren zatirik handiena –782.305 euro– IV. Kapitulara (ohiko gastuak eta jarduerak antolatzeakoak) joango da, Euskal Etxeen urteko programak edo jarduera zehatzak laguntzera bideratzeko; nagusiki, gazteria, emakume, kanpo-irudi eta komunikazio, memoria historiko, gastu arrunt eta funtzionamenduaren arloko jardueretara.

Gainerakoa –120.000 euro, VII. Kapitulan, azpiegitura eta ekipamendu gastuetako kapitulan–, zentroen beraien egoera hobetzera bideratutako jardueren gastuak osorik edo zati batean finantzatzera bideratuko da; esaterako, ezbeharrek eragindako kalteak konpontzeko, hesi arkitektonikoak kentzeko, euskal etxe berriak eraikitzeko, gazteentzako lekuak egokitzeko eta gazteen zein emakumeen jardueretan teknologia erabiltzeko.

Gaur onartu den deialdian parte hartu dezakete mundu osoko 25 herrialdetan dauden 195 euskal etxeek. Deialdia EHAA n argitaratzen den egunetik hasita, hilabete bateko epea egongo da eskaera egiteko.

Halaber, Gobernu Kontseiluak “Limako Arantzazu Euzko Etxea-Lima Basque Center” euskal etxe berria onartzea onartu du.

Lehendakaritza

KANPO-HARREMANEN EREMUAN GAZTEAK PRESTATZEKO BEKEN DEIALDIA EGIN DA

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran baimendu du kanpo-harremanen eremuan gazteak prestatzeko beken 2021-2022rako deialdia; zenbateko osoa 144.000 eurokoa da.

Guztira zortzi beka deituko dira, honako modalitateetan: Europako gaiak (4); kanpoko euskal komunitatea (2); eta kanpo-harremanak (2).

Europako gaietako beken onuradunek honako lekuetan gauzatuko dute euren jardura:

- Bi beka Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian, Gasteizen.
- Bi beka Euskadik Europar Batasunean duen ordezkartzan, Bruselan.

Kanpoko euskal komunitatearen alorreko beken onuradunek honako lekuan gauzatuko dute euren jardura:

- Bi beka Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian, Gasteizen.

Kanpo-harremanetako beken onuradunek honako lekuan gauzatuko dute euren jardura:

- Bi beka Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian, Gasteizen.

Euskadik kanpoan dituen ordezkartzetarako diren beka 24.000 eurokoak izango dira (bakoitza), eta 16.000 eurokoak jardura Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian, Gasteizen, gauzatu behar dutenen kasuan.

Segurtasuna

EUSKO JAURLARITZAK ETA EUSKADIKO LAGUNTZA TXAKURREN TALDEAK LANKIDETZA-HITZARMEN BAT IZENPETU DUTE LARRIALDIEN ETA BABES ZIBILAREN ARLOAN

- **Hitzarmen berriak talde honen eta Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemaren arteko koordinazioa sakontzen du**
- **Boluntario talde bat da, interes publikoa duena, eta Euskadin esperientzia handia du ezbeharrek eta hondamen publikoek eragindako egoeretan**

Gobernu Kontseiluak onartu du Segurtasun Sailaren eta Euskadiko Laguntza Txakurren Taldearen artean lankidetzaz hitzarmen bat izenpetzea larrialdien eta babes zibilaren arloan. Hitzarmen honen bidez 2007an izenpetutakoa eguneratuko da, eta talde honen eta Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibileko Euskal Sistemaren arteko koordinazioa sakonduko da, ezbeharrekin eta hondamen publikoekin zerikusia duten ekintzetan taldearen boluntario izaerari balioa emanda.

Aipatu behar da Euskadiko Laguntza Txakurren Taldea IRO – International Rescue Dog Organization erakundeko eskubide osoko kidea dela. Erakundea 1993an sortu zen Stockholmen, Suedian, nazioartean laguntza txakurrekin egiten den lana sustatzeko helburuarekin.

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibileko Euskal Sistemaren helburua da pertsonak, ondasunak eta ondare kolektiboa babestea arrisku kolektibo larrietan, hondamendi eta lazeria publikoko egoeretan, eta zerbitzu eta operatibo ezberdinak koordinatzea edo horiek esku hartzea eskatzen duten beste hainbat larrialdi-egoeretan.

Alde horretatik, Segurtasun Sailak koordinatuta bideratzen ditu zerbitzu ezberdinak, larrialdi-egoerei erantzunik egokiena eman ahal izateko, babes zibileko planak eta taktika operatiboak garatuz.

Hitzarmenak, beste hainbat alderdiren artean, lurraldeko jarduera-eremua, babes zibilaren arloan boluntarioei izendatutako zereginak, mobilizazio-sistema, baliabideen eta bitartekoen erabilgarritasuna eta boluntarioen prestakuntza arautzen ditu.

Segurtasuna

**EUSKO JAURLARITZAK 200.000 EUROKO DIRULAGUNTZAK DEITU DITU
JOKO ARDURATSUA SUSTATZEKO ETA LUDOPATIAREN
PREBENTZIORAKO SENTSIBILIZAZIO-PROGRAMAK ABIAN JARTZEKO**

Gobernu Kontseiluak dirulaguntza-deialdi berria egin du Euskadiko irabazi asmorik gabeko erakundeek joko patologikoaren prebentzio unibertsalerako, sentsibilizaziorako eta informazioa zabaltzeko proiektuak abian jar ditzaten.

Deialdi berri hau Eusko Jaurlaritzak joko arduratsuaren alde hartutako konpromisoaren baitan egin da. Helburu horrekin, 200.000 euroko laguntzak deitu ditu kanpaina hezitzaileak sustatzeko, prebentzio-programetan laguntzeko eta gainerako euskal erakundeei laguntza emateko, besteak beste, joko arduratsua bultzatzeko, joko patologikoaren prebentziorako eta adikzioak saihesteko helburuarekin.

Eusko Jaurlaritzaren helburu nagusia herritarrek jakinaren gainean eta parametro osasungarrien barruan joka dezaten sustatzea da, bai eta herritarrei jokoarekiko adikziozko jokabideen arazoaren berri eta orientazioa ematea ere.

Gobernantza Publiko eta Autogobernua

‘JESUS MARIA LEIZAOLA SARIAK’ LEHIAKETAKO LANEN AZTERKETA EREMUA EGUNERATU ETA ZABALDU DU

- **IVAPen helburua da euskal autonomiari eta autogobernuari buruzko ikerketa-lanak sustatzea eta bereiztea, bai eta gobernantza publikoa ere eraldaketa digitalaren edo klima-aldaketaren aurrean**

Gobernu Kontseiluak ‘Jesus Maria Leizaola 2021 Sariaren’ deialdia onartu du gaur. Orain arte bezala, honako hauek bereiziko ditu lehiaketak: Euskal autonomiarekin eta autogobernuarekin zerikusia duten ikerketa-lanak, gobernu-erakundeen konfigurazioa maila politiko-administratibo guztietan, edo euskal administrazioen diseinua, antolaketa, funtzionamendua eta ikuspegiak. Hala ere, globalizazioaren, eraldaketa digitalaren, klima-aldaketaren eta XXI. mendeko politika publikoen garapenari eragiten dioten beste erronka batzuen aurrean gobernantza publikoari buruzko lanak ere baloratuko ditu aurrerantzean epaimahaiak.

Aldaketaren helburua da gaiaren eremua eguneratzea eta zabaltzea, errealitate sozial eta instituzional aldakorraren aurrean; horrela, egungo eta etorkizuneko errealitatearekin bat datozen analisiak eta ikuspegiak eskainiko dituzten lanak baloratu eta sustatu ahal izango dira.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (HAEE) ematen du saria, eta deialdia banakoei eta horretarako prestatutako lantaldeei zuzenduta dago. Sarirako hautagai izango dira argitaratu gabeko ikerlanak, monografiak, euskaraz edo gaztelaniaz idatziak eta lehiaketaren oinarrietan adierazitako gaiak jorratzen dituztenak.

Sarirako aurkezten diren lanak deialdia HAEEen argitaratzen denetik 2021eko irailaren 20ra arte aurkeztu beharko dira, www.ivap.euskadi.eus/leizaola_saria web-orriaren bidez. Eskabideak, ikerketa lanarekin batera, izapidetze elektronikoen bidez aurkeztu beharko dira. Epaimahaiak gehienez ere sei hilabeteko epean argitaratuko du erabakia, aldizkarian argitaratzen denetik zenbatzen hasita.

Sariak izaera zientifikoko ikerlan onenei emango zaizkie eta guztira 30.000 euro izango dira: 20.000 euro lehen sari batentzat eta 10.000 euro accesit batentzat.

1990ean sortu zenetik, hogeita hamar edizio baino gehiago egin ditu HAEEK. Sariak ‘Jesus Maria Leizaola’ du izena, euskaldunen bigarren Lehendakariaren oroimenez, eta euskal sistema autonomikoaren berezitasun juridiko eta ekonomikoei buruzko azterlanak sustatzeko eta zabaltzeko, hain zuzen ere, institutuaren beraren eginkizunetako bat.

Ordudanik, HAEE sariaren deialdia egiten ari da aldian-aldian berritzeko ikertzaileen ahaleginak, askatasun osoz, beren ikasketak euskal autonomiarekin zerikusia duten gaietara bideratzen dituzten ikertzaileen ahaleginak, edo ikertzaileen azterketan eta sakontzean eragina izan dezaketen ikertzaileen ahaleginak.

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

EUSKO JAURLARITZAK MILIOI BAT EURO BIDERATUKO DITU BASQUE WINE MARKAKO PRODUKTUAK BARNE MERKATUAN SUSTATZEKO

- **Basque Beer, Txakolina, Euskal Sagardoa eta gutxienez %85 Arabako Errioxatik etorritako mahatsez egindako ardoak sartzen dira barruan**
- **Kanpo sustapenerako Lehiatu Berria programa ere onartu du**

Eusko Jaurlaritzak Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren Agindua onartu du. Agindu horren bidez, milioi bat euroko laguntza programa bat ezartzen da 2021eko ekitaldirako, BASQUE WINE markan sartutako produktuak barne merkataritzan sustatzeko.0} Era berean, kontseiluaren bilera berean, ontzat eman da Lehiatu Ardoa programako laguntzak arautzen dituen agindua. Laguntza horiek ardogintzako erakundeentzat dira, beren produktuak kanpoan sustatzeko eta irteera komertzial berriak bilatzeko.

Bi ildo horiek Eusko Jaurlaritzaren edariaren sektorea babesteko zabalitzen ari den estrategia zabalaren parte dira, Covid pandemiak eragindako krisiaren ondorioz aurre egin beharreko egoera delikatu arintzeko. Helburua da Euskadiko edariaren ekoizpen kate osoari eustea.

Estrategia hori Ardoa Basque Wine Office bikaintasunerako laguntza bulegoan zentralizatzen da. Bulego horren bidez lortzen da upategiak azoketan egotea, esportazioetarako partzuergoak sortzen laguntzea, eta era guztietako laguntza publiko eta finantzarioak indartzea inbertsioetarako eta merkatuaren dibertsifikaziorako.0} Ardoa Basque Wine Officek koordinatuta eta finantzatuta beste ekimen batzuk ere garatzen dira, hala nola berrikuntza komertzialari laguntzeko bonuen programa (Mugagabe Ardoa), www.basquewine.eus Ardoa Lurraldearen Atariaren garapena, "Gure Ostalaritzan, Basque Wine" Atxikipen programa, eta "On Egin Bonoa" kanpaina.

Onuradunak

Laguntza horien onuradunak izan daitezke hamar milioi euro edo gutxiagoko negozio bolumena duten eta bereizgarri hauen babespeko edariak ekoizten dituzten ETEak:

- Basque Beer,
Txakoli de Álava - Arabako Txakolina, Txakoli de Bizkaia - Bizkaiko Txakolina, Txakoli de Getaria - Getariako Txakolina,
- Euskal Sagardoa,
- Errioxako JDKren kasuan, gutxienez %85 Arabako Errioxan ekoiztutako mahatsez eginda dauden eta etiketan hala zehazten duten ardoak (adibidez, Eskualdeko Ardoa, Udalerriko Ardoa edo Mahasti Berezia).

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Diruz lagundu daitezkeen jarduera guztiak 2021ean garatu beharko dira, eta honako hauek dira:

- Erakusketari gisa parte hartzea izaera profesionaleko azoka edo lehiaketa komertzialetan.
- Azoka profesionaletara joatea.
- Zuzeneko misioak eta produktuen aurkezpena Estatuko barne merkatuetan.
- Euskal Autonomia Erkidegoan bakarrik egindako alderantzizko misioak.
- Saltokiko sustapen jarduera zehatzak eta bereziak.
- Enpresaren irudiari eta produktuei buruzko katalogoak eta ikus-entzunezko materialak.
- Publizitate kanpainak komunikabideetan

Laguntzaren zenbatekoa diruz lagundu daitezkeen gastuen %60 izango da, eta gehienez ere hamabost mila euro onuradun bakoitzeko.

Aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Eskabide orria helbide honetan dago eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/servicios/1200501>.

LEHIATU ARDOA PROGRAMA – KANPO SUSTAPENA

600.000 euroko zuzkidurarekin, laguntza bakoitzaren zenbatekoa, kasuan kasu, aurreikusitako gastuen %50 eta %60 artekoa izango da, eta gehienez ere 30.000 euro eskaera bakoitzeko.

Sustapenaren xede diren ardogintzako produktuak EAEko establezimendu batean egin behar dira, eta kategoria hauetakoren batekoak izan:

- Jatorri Izendapen Babestuko ardoak
- Adierazpen geografiko babestuko ardoak.
- Ardogintzako mahats barietatea edo barietateak adierazten dituzten ardoak.

Onuradunak eta epeak Lehiatu Ardoa

Lehiatu Ardoa programako laguntza hauek jaso ahal izango dituzte ardogintzako enpresek, baldin eta egoitza soziala eta helbide fiskala Euskal Autonomia Erkidegoan badituzte; Getariako Txakolina, Bizkaiako Txakolina eta Arabako Txakolina jatorri deituren kudeaketa organoek; helburuen artean ardoa sustatzeko eta merkaturatzeko ekimenak dituzten ekoizleen aldi baterako elkarteek edo elkarte iraunkorrek, eta egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten esportazio partzuergoek.

Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira laguntza horien deialdian parte hartzeko eskaerak, eta epea hilabete batekoa izango da. Elikagaien Kalitate eta Industrien Zuzendaritzari dagokio deialdi honetan arautzen diren laguntzen kudeaketa.

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

"OCM- ARDOA INBERTSIOA" LAGUNTZAK IRAGARRI DIRA, SEKTOREKO ENPRESEN ERRENDIMENDUA ETA LEHIAKORTASUNA HOBETZEKO ETA MERKATURA HOBETO EGOKITZEKO

- Kalkulatzen da inbertsioak 15 milioi eurokoak izan daitekeela, eta inbertsio horiei 4,4 milioiko laguntzak egokituko litzaizkieke
- Mahastizaintzako eta ardogintzako enpresak, ekoizleen erakundeak, bi ekoizle edo gehiagoren elkarteak eta lanbide arteko erakundeak dira laguntzen hartzaileak

Eusko Jaurlaritzak ontzat eman du Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren agindua, 2022rako mahastizaintzaren eta ardogintzaren sektorean egiten diren inbertsioetarako laguntzen deialdia egiten duena. Inbertsioak, berriz, enpresen errendimendu globala hobetzeko, merkatuaren eskaeretara egokitzeko eta lehiakortasuna handitzeko izango dira Aurreko deialdietako datuen arabera, kalkulatu da inbertsioak 15 milioi eurokoak izango direla, eta inbertsio horiei 4,4 milioiko laguntzak egokituko litzaizkieke.

Helburua da egungo egoera bideratzea, mahastizaintzako eta ardogintzako ekoizleen lehiakortasuna handitzeko eta haien ardoen kalitatea sendotzeko, sektoreko inbertsioak babestuta. Laguntza finantzarioa ematea ardogintzako eraldaketa instalazioetan eta azpiegiturretan eta merkaturatzeko egitura eta tresnetan egiten diren inbertsio ukigarri edo ukiezinei, baita energiaren aurrezpena, energiaren eraginkortasun globala eta prozesu iraunkorrak hobetzeko.

Mahastizaintzako eta ardogintzako enpresak eta ekoizleen erakundeak, nortasun juridikoa duten bi ekoizle edo gehiagoren elkarteak eta lanbide arteko erakundeak dira laguntzen hartzaileak.

Laguntza horiek FEAGA funtsek finantzatzen dituzte % 30 eta % 40 bitartean, eta bateraezinak dira Europako funtsetatik edo estatu laguntzetatik datozen beste dirulaguntza batzuekin. Ordainketa Eusko Jaurlaritzaren bidez egingo da, eta itzuli beharrik gabeko zuzeneko laguntzak izango dira gastu edo inbertsioetarako.

Diruz lagundu daitezkeen kostuak

Diruz lagundu ahal izango dira honako ekintza hauen kostuak:

- Ondasun higiezinak erostea, eskuratzea edo hobetzea.
- Makina eta ekipamendu berrien erosketak; gehienez ere merkatuko balioaren pareko zenbatekoz lagunduko da.
- Letretan jasotako gastuei lotutako kostu orokorrak, hala nola arkitektoen, ingeniarien eta aholkularien ordainsariak eta

bideragarritasun azterketak, inbertsio eragiketarako onartutako aurrekontuaren % 8ko mugarekin.

- Ordenagailuko euskarri logikoak erostea edo garatzea eta patenteak, lizentziak, egile eskubideak eta marka kolektiboen erregistroa eskuratzea.

Eskaera egiteko epea

Laguntza hauetarako eskabideak Agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eta 2022ko otsailaren 1a baino lehen aurkeztuko dira. Hala ere, 2021eko otsailaren 1etik aurrera aurkeztutako eskabideak onartuko dira, baita egun horretan aurkeztutakoak ere. Laguntza hau eskatzeko inprimakiaren edukia agindu honen III. eranskinean agertzen da.

Eskabideak bide elektronikoaren bidez aurkeztuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan sartuta.

Izapidetzeko jarraibideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta ereduak jasotzen dituen administrazio prozeduraren informazio fitxa, eskaera egiteko inprimakia eskuratzeko erabiltzen dena, helbide honetan eskura dago: <https://www.euskadi.eus/servicios/0111009>.

Aurreko deialdiak

OCM Ardoa - inbertsioa programak azken deialdietan ardoaren sektoreari emandako laguntzak 10 milioi eurotik gorakoak izan dira.

2021-2022 ekitaldia balorazio fasean dago oraindik, eta 51 proiektu daude, proposatutako 9,75 milioi euroko inbertsioarekin.

Aurrekari horiekin, kalkulatu da egungo eskaera aldirako gastu aurrekontua, 2022ko urtarrilaren 31n ixten dena, beste ekitaldi batzuetakoa baino pixka bat handiagoa izango dela; beraz, 15.000.000 €-ko inbertsioa egingo litzateke, eta 4.500.000 €-ko laguntza egokituko litzaioke.

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

2021ERAKO ITSASORATU PROGRAMA IRAGARRI DA, IKASLEEK ARRANTZA ONTZIETAN PRESTAKUNTZA EGONALDIAK EGIN DITZATEN, SEKTOREAN GAZTEEN ENPLEGUA ETA BELAUNALDIEN ARTEKO ERRELEBOA SUSTATZEKO

- **Sektorea gaztetu eta profesionalizatzea dira Eusko Jaurlaritzaren helburu estrategikoetako batzuk**
- **2016an jarri zen abian, eta harrez gero jada 82 gaztek eskuratu dituzte beka horiek. Aurten, berriz, 105.000 euroko partida dute laguntzek**

Eusko Jaurlaritzak 2021erako ITSASORATU programako laguntzen deialdia egin du arrantza enpresentzat, ikasleek arrantza ontzietan prestakuntza egonaldiak egin ahal ditzaten, flotaren plantilla gaztetzea bultzatzeko eta, ondorioz, belaunaldi erreleboa bermatzen laguntzeko. Aurten 105.000 euroz zuzkituko dira laguntzak.

2016an abian jarri zenetik, 82 gaztek eta 70 itsasontzik parte hartu dute, eta aurten ekimenarekin 10-15 ikasle gehiagok bat egitea espero da.

Urtero deitzen dira ITSASORATU programaren laguntzak – 2020an izan ezik, Pandemia dela-eta– Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren agindu baten bidez, eta arrantza enpresentzat dira, ikasleek itsasontzietan prestakuntza izan dezaten. Horrela gauzatzen da Eusko Jaurlaritzak 2015-2020 aldirako landu duen Arrantza eta Akuikulturako Plan Estrategikoaren oinarrietako bat, non arrantza sektorea gaztetzea eta profesionalizatzea baitira helburu estrategikoak.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko Sailaren helburuetako bat da arrantzarekin lotura duten sektoreetako langileen trebakuntza sustatzeko politika egokia edukitzea.

Hala, ITSASORATU programa arrantza enpresei zuzenduta dago, itsas-arrantza alorreko prestakuntza zikloak egiten ari diren ikasleei beren arrantza ontzietan prestakuntza egonaldiak egitea ahalbidetu diezaieten, ikasleak itsasontziaren barruan dauden bitartean sortzen zaizkien gastuak diruz lagunduta.

Itsas arrantzako prestakuntza zikloetako lehen kurtsoko ikasleek arrantza ontzi batean egindako prestakuntza egonaldia diruz lagundu daiteke marea baten pareko aldi batean, hau da, 20 edo 30 egun bitartean.

Egonaldia Euskadin egoitza portua duten itsasontzietan egingo da. Enpresa onuradun bakoitzak ikasle bakarra hartu ahal izango du prestakuntza egonaldi bakarrean. Praktiketako ikaslearen jarraipena eta tutoretza egin behar da, bai eta azken balorazio txostena ere.

Pasaiako Itsas-arrantzako Prestakuntza Zentroan –Blas de Lezo–, Bermeoko Itsas-arrantzako lanbide prestakuntzarako eskolan eta Ondarroako Antiguako Ama Itsas-arrantzako lanbide prestakuntzarako eskolan erdi mailako eta goi mailako prestakuntza zikloetako 1. Kurtsoko ikasleak izan behar dira, eta kurtsoko horretako ikasgai guztiak gaindituta eduki behar dituzte.

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

EUSKADIKO CLUSTERRAK DINAMIZATZEKO ERAKUNDEEK 3 MILIOITIK GORAKO LAGUNTZAK JASOKO DITUZTE

ETEn, enpresa handien, ezagutza-hornitzaileen eta eskualdeetako berrikuntza-sistemen beste eragile batzuen arteko kooperazioa, cluster berean zein cluster desberdinen artean, sektore nagusietako bat da enpresen berrikuntza eta internazionalizaziorako gaitasunak areagotzeko.

Horregatik, Gobernuak 3.049.184 euroko laguntzak onetsi ditu gaur. Laguntza horiek enpresa-talde berritzaileei edo clusterrak dinamizatzeko erakundeei zuzenduta daude, kooperazioa ahalbidetzen duten agente nagusiak direnez gero berrikuntza-sistemaren eragileen artean eta, ETEen artean bereziki, eta betiere haiei balio-kate globaletan barneratzen laguntzea xedetzat hartuta.

Programaren helburua erakunde horiei zuzendutako babesa erregulatzea da, subentzio ez itzulgarrien bidez ETEen eta euskal ekonomiaren lehia sustatzeko. Clusterrak dinamizatzeko erakundeentzat bideratutako laguntza-programa 2020-2024 aldirako “Euskadi martxan” Gobernu Programa Markoaren oparotasun-ardatzean sartzen da: ekonomia eta enplegua berrindartzea industria aurreratuan, inbertsioan, berrikuntzan eta internazionalizazioan oinarritutako estrategia baten bitartez, non Cluster politikaren jarduketa-konpromiso gisa biltzen den Euskadiko industriaren transformazioa bultzatzea eta proiektu traktoreak garatzea, ekosistema industrial eta balio-kate globaletan integratuak.

Gainera, COVID-19aren eta Alarma Egoera deklaratu izanaren ondorioz, Agindua 2020an tramitatzen ari zen bitartean, beharrezkotzat jo zen laguntza espezifiko bat gehitzea cluster ekimen eta ekintza berrietarako, egoera honen ondorioak arintzearen, baita Lehia Berreskuratzeko Ibilbide Orriak lantzea eta zabaltzea ere, clusterrei ahalbidetzeko erronkei aurre egitea eta eszenario berritik eratorritako aukerak aprobeztatzea.

ESKAEREN AURKEZPENA:

Eskaerak aurkezteko epea 9:00etan hasiko da, Agindu hau Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean, eta 12:00etan amaituko da, 2021eko irailaren 22an.

Laguntzak emateko deialdi honi lotutako eskaerak, errekerimenduak, jakinarazpenak eta gainerako kudeaketak baliabide elektroniko bidez egingo dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 14.2. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira.

Eskaerak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako dokumentazioa kanal elektronikoaren bidez tramitzeko moduari buruzko espezifikazioak —Ebazpen honen Eranskinean adierazten dira— Internet helbide honetan beteko dira: www.euskadi.eus.

Ekonomia eta Ogasuna

EUSKO JAURLARITZAK EKARPENEN LEGE-PROIEKTUA ONARTU DU LEGEbiltzarreko IZAPIDEARI EKITEKO

Gobernu Kontseiluak Ekarpunen Legearen proiektua onartu du gaur, Eusko Legebiltzarrera bidaltzeko eta, horrela, Legebiltzarrean tramitatzen hasteko. Helburua da, beharrezko izapide parlamentario guztiak bete ondoren, Ekarpunen Lege berria urriaren hasierarako indarrean egotea eta, horrela, erakunde-maila guztietan 2022ko aurrekontuak metodologia berria aplikatuz egitea.

Astearte honetan egindako bileran, Jaurlaritzak ontzat eman du Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak (HDEK) uztailaren 15ean lortutako akordioa. Akordio horretan, baliabideak banatzeko eta 2022-2026 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuak finantzatzeko foru-aldundiek egin beharreko ekarpenak zehazteko metodologia onartu zen.

HDEKn lortutako akordioak, lege-proiektu honetan jasotzen denak, egungo metodologiaren indarraldian erakundeek eskatu dituzten aldarrikapenak jasotzen ditu, eta, batez ere, balioa ematen dio Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeak (ETEL) dakartzan manuak sartzeari, udal-finantzaketari buruzko berariazko kapitulu bat gehituta.

Ekonomia eta Ogasuna

EUSKO JAURLARITZAK 2021EKO PROGRAMA ESTATISTIKOA ONARTU DU: 211 JARDUERA ETA 20,5 MILIOI EUROKO KOSTUA IZANGO DU

Gobernu Kontseiluak, gaurko (asteartea) bileran, Euskal Autonomia Erkidegoko 2021eko Urteko Estatistika Egitaraua baimentzen duen dekretua onartu du. Bertan, 211 estatistika-eragiketa planteatzen dira, aurreko urtean baino bat gehiago, 20,5 milioi euroko kostuarekin.

Programa honetan sartzen dira Euskal Estatistika Erakundeak (Eustatek eta Eusko Jaurlaritzako sailtako estatistika-organoek osatua) aurten egingo dituen estatistika-lan eta -jarduera guztiak. Horrela, egun indarrean dagoen 2019-2022 aldirako Euskal Estatistika Planean aurreikusitako jarduerak garatuko dira; plan hori lege bidez onartu zen Eusko Legebiltzarrean, 2019ko ekainean.

Estatistika ofiziala ezinbestekoa da errealitate sozioekonomikoa ezagutzeko, are gehiago krisi-une hauetan. Haren bitartez lortzen diren emaitzak funtsezkoak dira, zuzenean eragiten baitute erabakiak hartzean, bai sektore publikoan, bai pribatuan.

Programa honen elementu nagusia 2021. urtean zehar egin beharreko estatistika-eragiketen 211 fitxak dira. Fitxa bakoitzak helburu orokorrak, erakunde arduraduna, erakunde parte-hartzaileak, lurralde-eremua, emaitzak zabaltzeko maiztasuna, zabalpenerako egutegia, informazio-unitateak, informatzaileak eta aurrekontua jasotzen ditu.

2021eko programaren kostu osoa 20,5 milioi eurokoa da, eta Eustatek du gasturik handiena, kostu osoaren % 72,6, alegia; ondoren daude Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila (% 7,3) eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila (% 5,2).

Aurreikusitako 211 estatistika-eragiketetatik, Eustat da 113ren arduraduna, eta gainerakoak (98) honela banatzen dira, sail bakoitzaren arabera:

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena: 30 eragiketa
Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak: 13 eragiketa
Kultura eta Hizkuntza Politika: 11 eragiketa
Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak: 10 eragiketa
Osasuna: 10 eragiketa
Lana eta Enplegua: 7 eragiketa
Gobernantza Publikoa eta Autogobernua: 6 eragiketa
Ekonomia eta Ogasuna: 4 eragiketa
Segurtasuna: 4 eragiketa
Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa: 3 eragiketa

Hiru foru-aldundiak ere agertzen dira parte-hartzaile gisa.

Gaikako arloen arabera, kostu handiena duena da “Demografia eta gizarte-ohiturak” (2021eko programaren % 13), ondoren “Estatistika-azpiegitura” (% 10,9) eta, azkenik, “Kontu ekonomikoak” (% 10,3).

Hedapenari dagokionez, 168 estatistika-eragiketa egiturazkoak dira, urtean behineko edo gehiagoko maiztasuna dutenak; horietatik 93 urtean behin egiten dira. 25 koiunturalak dira, urtean behin baino gutxiagotan zabaltzen direnak, eta 18 dira noizbehinkakoak edo irregularrak.

Era berean, nabarmendu behar da 70 estatistika-eragiketatan informazio administratiboa edo fiskala erabiltzen dela datu-iturri gisa, eta 50 eragiketa gehiagotan informazio osagarri edo misto gisa erabiltzen dela iturri gisa.

Hezkuntza

37,5 MILIOI EURO ITUNPEKO IKASTETXEENTZAT, COVID-19REN AURKAKO PREBENTZIO-PROTOKOLOAK APLIKATZEAREN ONDORIOZKO GASTU GEHIGARRIETARAKO

Gobernu kontseiluak gaurko bilkuran onartu du, hezkuntzako sailburuaren proposamenez, zuzeneko diru-laguntzak ematea hezkuntza-ituna indarrean duten eaeko ikastetxeei, 2021-2022 ikasturtean covid-19aren aurkako prebentzio-protokoloek eskatutako neurri jakin batzuk aplikatzearen ondoriozko gastu gehigarrietarako. Itunpeko ikastetxe bakoitzak jaso beharreko zenbatekoa zehazteko irizpideak ikastetxe publikoetarako erabiltzen diren berberak izango dira.

Erabaki honen xede diren gastu gehigarriak ordaintzeko erabiliko den zenbatekoa 37.565.167,15 eurokoa da, eta aurrekontuan honela banatuko da:

- 2021. Urtean: 13.665.715,03 €
- 2022. Urtean: 23.899.452,12 €

Egungo egoera epidemiologikoa dela eta, hezkuntza sailak beharrezkotzat jotzen du irakasleentzako hezkuntza-errefortzuko neurriei eustea covid-19a dela eta, 2021-2022 ikasturterako.

Eusko jaurlaritzak ikasgeletako presentzialtasunaren aldeko apustu sendoa egiten jarraitzen du. Segurtasun-protokoloak errespetatzea ahalegin gehigarria da ikastetxeetako zuzendaritzentzat, zentroko giza baliabideen kudeaketa planifikatzeko orduan.

Datorren ikasturtea normaltasuneranzko trantsizio-ikastaro gisa aurkezten da, non pandemiak eragindako zailtasun asko egokitzea eta gainditzea lehenetsiko den. Ondorioz, beharrezko egokitzapenari eta horren ondoriozko berrantolaketa akademikoari aurre egiteko, ezohiko baliabideak eduki beharko dira normaltasun eta agertoki berrietara arrakastaz iritsi ahal izateko eta, horrela, etorkizuneko erronka akademikoetara lasaitasun, ziurtasun eta sendotasun handiagoz egokitzeko. Irakasleen kontratazio gehigarriei eusteak 2021-2022 ikasturtearen hasierak ekarriko duen normaltasun berriari lasaiago aurre egin ahal izatea ekarriko du.

Hezkuntza

3.773.000 EURO HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEEN ESKOLA-GARRAIORAKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuak proposatuta, ikastetxe publikoetan edo, salbuespen gisa, itunpeko ikastetxe pribatuetan eskolatuta dauden hezkuntza-premia berezietako ikasleentzat 2021-2022 ikasturtean eskola-garraiorako banakako diru-laguntzak deitzen dituen Agindua onartu du.

Diru-laguntza hauen jasotzaileak izango dira, ezgaitasun larriak izan (ezgaitasun fisikoa, psikikoa edo sentsoriala) eta, antolatutako eskola-garraioa edota ohiko garraio publikoa erabili ezin dezaketen ikasleak, eta hortaz, euren etxebizitzetatik eskoletara joatea erraztuko duen garraio-alternatiba bat behar dutenak. Eskola inklusiboaren aldeko printzipioari jarraiki, Hezkuntza sailak ikasle hauek ikasteko edo parte-hartzeko izan ditzaketen oztopoak ezabatu edo leundu nahi ditu deialdi honen bidez, eta eskola-garraioa ez dadila zailtasun bihurtu ikasle bakoitza ingurunerik egokienean eskolaturik egon dadin.

2020-2021 ikasturte honetan, ezgaitasunen bat zuten 990 ikasleren 151 ikastetxetarako garraioa finantzatzen da deialdi honen bidez.

2 MILIOI EURO MUSIKA IKASTEGI PRIBATUEN FINANTZIAZIORAKO

Gobernu Kontseiluak gaurko bilkuran onartu du, Hezkuntzako sailburuak proposatuta, Musika Eskola Pribatuei eta Musikako Zentro Baimendu Profesionalei diru-laguntzak emateko deialdia egiten duen agindua.

Gaur onartutako deialdiak 2.089.389 euroko zenbateko ekonomikoa du, eta haren helburua da EAEko titulartasun pribatuko musika-eskoletarako eta musikako zentro profesional baimenduetarako diru-laguntzen deialdia egitea, 2020-2021 ikasturteko kostuak finantzatzen laguntzeko.

Beraz, EAEn musika-irakaskuntzak garatzen laguntzea da helburua. Eskola horiek musikaren arloko prestakuntza praktikoa ematen dute eta nahi duten ikasleak ikasketa profesionaletarako prestatzen dituzte.

Bi diru-laguntza lerro daude: bat, aurrekontuaren % 25eko edo hortik gorako udal-finantzaketa duten zentroetarako, eta, bestea, % 25etik beherako edo udal-finantzaketarik gabeko zentroetarako.

Diruz lagundu ahal izango dira ikastetxe horietako langileen kostuak (irakasleenak eta irakasle ez direnenak), ekipamenduarenak eta funtzionamenduarenak, musika-irakaskuntzaren irakaskuntzarekin zuzenean lotuta daudenetarako.

Hezkuntza

700.000 EURO LANBIDE HEZIKETAN ERASMUS+ MUGIKORTASUN PROGRAMAK LAGUNTZEKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du Lanbide Heziketaren eremuan ikaskuntzarako mugikortasun-ekintzak antolatu eta garatzeko dirulaguntzak deitzen dituen agindua, Erasmus+ programaren barruan.

700.000 euroko zenbatekoa duen Agindu honen helburua da, Erasmus+ programaren 2021eko deialdian ikaskuntza arrazoiengatik pertsonak mugitzeko onartutako mugikortasun-proiektuak kofinantzatzeko dirulaguntzak ematea, betiere mugikortasun-proiektu horiek 2021-2022 ikasturtean gauzatzen badira. Mugikortasun horien azken hartzaileak Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketan matrikulatutako edo titulaturako ikasleak (Erdi Mailako zein Goi Mailako zikloetakoak) edo euskal Lanbide Heziketako irakasleak izan daitezke.

Europako Batasunak mugikortasun jarduera horiek finantzatzeko egiten duen ekarpen ekonomikoa ez da nahikoa izaten jarduera horiek gauzatu ahal izateko, beraz ezinbesteko gertatzen da deialdi hauek egitea Europako finantziarioak hartzen ez duen portzentajea osatzeko. Deialdi honen bidez ematen diren dirulaguntzak egonaldi-gastuetarako bideratzen dira, batez ere.

986 ikasle eta 61 irakasle

2020-2021 ikasturtean Euskadiko Lanbide Heziketako 987 ikasle izan dira orotara, bai ikastetxe publikoetakoek bai itunpekoek, Erasmus+ mugikortasun proiektuetan parte hartzeko laguntza hauen onuradun, iazko deialdien bidez. Irakasleak berriz, 61 izan dira.

Deialdi honek laguntzen dituen ikasleen zein irakasleen mugikortasun-ekintzek honako helburu hauek sustatzen dituzte:

- Parte-hartzaileei laguntzea ezagutza, trebetasunak eta gaitasunak bereganatzen, haien garapen pertsonala bultzatze aldera.
- Lanbide Heziketako ikasleei atzerrian prestakuntza jasotzeko aukerak ugaritzea.
- Ikasleei beharrezko dituzten trebetasunak ematea, hezkuntza eta prestakuntza-erlotik lan-merkatura igaro daitezen.
- Hezkuntzaren eta Lanbide Heziketaren esparruetan ohitura berritzaileak garatzen laguntzea eta horien transferentzia lortzea bertan zein herrialde parte-hartzaileen artean.

Osasuna

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

EUSKO JAURLARITZAK EUSKADIKO MEMORIA HISTORIKOAREN ETA DEMOKRATIKOAREN LEGE-PROIEKTUA ONARTU DU ETA LEGEBILTZARRERA IGORRI DU

- **Beatriz Artolazabal Berdintasun, Justizia eta Gizarte politiketako sailburuak eta memoriaren politiken arduradunak azpimarratu duenez, etorkizuneko Legeak "indartu eta arau-esparrua" ematen dio Eusko Jaurlaritzak arlo horretan egindako ibilbideari**

Beatriz Artolazabal Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak prentsaurrekoa eman du Gobernu Kontseiluan Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikoaren Lege proiektua onartu dela eta Legebiltzarrera igorriko dela jakinarazteko.

Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikoaren Lege proiektuak Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikorako politika publikoak arautzen ditu. Hala ere, lege honek, Euskadiren kasuan, ez du esan nahi arlo honetako jarduera publiko eta instituzionala hasi denik, Artolazabal sailburuaren hitzetan **"hamarkadetako ibilbide honek Euskadi erreferentzia gisa jarri du memoria historiko eta demokratikoan. Ibilbide horri Gobernu Kontseiluak gaur onartu duen lege-aurreproiektuak arau-esparrua indartu eta eman nahi dio"**.

Aurreproiektu hau, beraz, urrats berri bat da, Eusko Jaurlaritzak egiten dituen memoriaren politika publikoak arauz finkatzen dituen, eta orain arte garatutako jardueren bolumena sustatzen eta zabaltzen duena.

Etorkizuneko legeak bi helburu ditu: batetik, Gerra Zibilaren eta diktadura frankistaren biktimen memoria, aitortza eta erreparazioa sustatzea; eta, bestetik, printzipio eta balio etiko eta demokratikoak sustatzea.

Beatriz Artolazabal sailburuak azpimarratu duenez, gaur onartutako aurreproiektuak **"iraganari begiratzen dio, baina, batez ere, Euskadiren etorkizunari. Etorkizuna oroimenez, egia baita justiziarako bermerik onena. Eta oroimena, egia, justizia eta ez errepikatzea guztion ondare demokratikoa dira"**.

Legeak printzipio hauek ditu oinarri: **egia, justizia, erreparazioa eta berriz ez gertatzeko bermea, bai eta balio demokratikoak ere**: konkordia, bizikidetzeta, aniztasun politikoa, giza eskubideen defentsa, bakearen kultura eta gizonen eta emakumeen berdintasuna.

Ildo horretan, **genero-ikuspegia** aurreproiektuaren idazketan agertzen da, eta memoria historikoa berreskuratzea sustatzen du, ikuspegi osoa eta testuinguruaren araberakoa lortu ahal izateko; horrela, agerian geratzen da gizonak eta emakumeak indarkeria-mota desberdinen eraginpean jartzen direla gatazka-egoera eta gatazka-ondoko egoera berberetan. Eta, indarkeria berberen biktima izan arren, indarkeria horiek eragin desberdinak dituzte beren bizitzetan,

gizartean betetzen dituzten rolangatik eta aurretik boterearen banaketan zeuden desberdintasunengatik.

Memoria Historiko eta Demokratikoaren Lege proiektuak **egiarako eskubidea** jasotzen du, gizarte osoak eta, bereziki, biktimek Gerra Zibilean eta diktaduran gertatutakoa ezagutzeko duen eskubidea jasotzen du. Horretarako, honako jarduera hauek sustatzen dira: 1936-1978 bitartean Euskadin izandako giza eskubideen urraketen txostena edo Gerra Zibilean Euskadin izandako hildakoen errolda.

Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak dagoeneko jorratu dituen bi jarduera dira. Txostenaren lehen fasea, Gerra Zibilean eta lehen frankismoan hildako biktimei buruzkoa, eta dagokion biktimen errolda, gaur egun martxan eta praktikan dago, eta kontsulta iturri da familientzat eta ikertzaile-komunitatearentzat.

Justiziarako eskubideari dagokionez, Justizia Administrazioa Estatuaren eskumen eskusiboa dela kontuan hartuta, III. kapituluaren zehazten du zer bultzada eta lankidetzaz izango diren Ertzaintzarekin, Fiskaltzarekin eta organo judizialekin, giza gorpuzkiak aurkitzearen eta egindako identifikazioen ondorioz delitu-zantzuak daudela jakinarazteko.

Proiektuak biktimek **errekonozimendua eta erreparazioa** jasotzeko duten eskubidea arautzen du, eta, horretarako, honako hau aurreikusten du: alde batetik, administrazio honek iraganean gauzatutakoen osagarri diren kalte-ordainen egokitasuna eta bideragarritasuna baloratzea, eta, hala badagokio, ezartzea. Bestalde, hildakoak banan-banan aitortzea eta kolpe militarren eta diktaduraren biktimak gogoratzeko eta omentzeko urteko egun bat ezartzea.

V. kapituluaren **memoria zabaltzeko neurriak** lantzen dira: Gogora Institutuaren Dokumentazio Zentroa sendotzea, Institutuaren egoitzan erakusketa-gunea sortzea eta beste dibulgazio-jarduera batzuk. Atal honetan, Hezkuntza Sailarekin lankidetzan aritzeko funtsezko bide bat ezartzen da, Memoria Historikoa euskal curriculumean txertatzeko tresna didaktikoak garatzeko.

Zeregin hori beste jarduera mota batzuekin osatzea aurreikusten da, hala nola ikasleei zuzendutako espazio, ibilbide edo erakusketetara egindako bisitekin, horrela, Euskadin denbora-tarte horretan gertatutakoari buruz dakitela bermatzeko.

Arauren atal horretan bertan, Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren egoitzan erakusketa-gunea sortzea eta bertako Dokumentazio Zentroa sendotzea aurreikusten da.

Memoriaren dimentsio pedagogikoari eta dibulgazio- eta hezkuntza-baliabideen sorrera sustatzeari buruzko atala da, memoriaren dibulgazioa eraginkorra izan dadin.

Testuak jasotzen duenez, Gogorari dagokio **Gerra Zibilean desagertutako pertsonak aurkitu eta identifikatzeko jardutea**. Eusko Jaurlaritzako sail desberdinek lehenik eta gerora, Gogora Institutuak, egiten dituzten jarduerak

dira. Esparru honi dagokionez, 2003. urtetik, 110 biktimaren gorpuzkiak berreskuratu dira, 108 gizon eta bi emakume ("Gerra Zibileko desobiratzeak Euskadin" txostena). Legeak, era berean, desagertutako ahalik eta pertsona gehien berreskuratzeko ekintzak sustatzeko beharra ezartzen du, eta, zehazki, Cuelgamurosko haranean (lehen Erorien Harana deitua) lurperatutako gorpuzkiak berreskuratzeko beharrezko kudeaketak hasteko beharra, haien senideek eskatzen dituztenean. Gogora Institutua dagoeneko gauzatzen ari den jarduerak.

Memoria Historikoaren aurkako sinbologia ere aurreproiektu honetan arautzen da. Nahiz eta mota honetako elementu, sari eta ohore instituzional gehienak kendu egin diren azken urteetan, oraindik ere behin betiko desagertu beharreko aztarnak daude.

Arauk Euskadiko **Memoria Historikoaren Dokumentua** terminoa ezartzen du, Euskadirentzat interesgarriak diren dokumentu-funts eta ahozko testigantza guztiei erreferentzia eginez. Eta dokumentu horiek eta, bereziki, Gerra Zibilean eta diktaduran konfiskatutakoak berreskuratzeko jarduketak egiteko beharra jasotzen du.

Proiektuak Euskadiko Memoria Historikoaren **Lekuak, Ibilbideak eta Espazioak** jorratzen ditu, eta bertan definitzen dira, oro har, leku horiek. Geroko garapen batean, lekuen, ibilbideen eta espazioen katalogoa sortuko da, eta babes- eta kontserbazio-araubidea zehaztuko da.

Arauren testuak Euskadiko elkarte-mugimendua aintzatesten du, Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikoa berreskuratzen eta biktimak defendatzen egindako lanagatik. Era berean, **Memoria Historikoko Erakundeen aholku-batzorde** bat sortzea ezartzen du, erakunde memorialisten kontsulta- eta partaidetza-organo gisa.

Lege-aurreproiektu honek **zehapen-araubideari buruzko atal bat du**, arau-hauste oso larriak, larriak eta arinak ezartzen dituena, bai eta horiei dagozkien zehapenak ere. Horien ondorioz, 10 mila eurotik 150 mila eurora bitarteko isunak ezartzen dira arau-hauste oso larrien kasuan; 2.000 eurotik 10.000 eurora bitartekoak arau-hauste larrien kasuan, eta 200 eurotik 2000 eurora bitartekoak arau-hauste larrien kasuan.

Horrela, arau-hauste oso larritzat jotzen dira, adibidez: gerra Zibileko biktimen hobiak suntsitzea, eta egia ikertzeko eta ezagutzeko garrantzitsuak diren dokumentuak suntsitzea eta ezkutatzea. Arau-hauste larrien artean, honako hauek nabarmentzen dira: giza gorpuzkiak aurkitu direla ez jakinarazteari buruzkoak; Gerra Zibilaren eta diktaduraren biktimen aurkako adierazpenak, eta 1936ko kolpe militarra eta diktadura gogoratzeko edo goraiatzeko ekitaldiak.

Testu honen tramitazio parlamentarioak Gobernu Kontseiluak gaur onartutako dokumentua aberasteko ekarpenak biltzea eta eztabaidatzea ahalbidetuko du. Zentzu horretan, Beatriz Artolazabalek aldarrikatu duenez, "**Memoriak ezin du zatiketarako eta konfrontaziorako tresna izan; memoria, egia eta biktimen aitortza guztion ondarea dira eta izan behar dute**".

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

ELANKIDETZAK AFRIKAKO AINTZIRA HANDIETAKO BAKEAN EMAKUMEEN PARTE HARTZEARI LAGUNDUKO DIO

- **Gobernu Kontseiluak 150.000 euroko beste dirulaguntza onartu du Nazioarteko Bake Brigadetarako, giza eskubideen defendatzaileak babesteko**

Gobernu Kontseiluak 320.000 euroko dirulaguntza zuzena onartu *Synergie des femmes pour les victimes de violences sexuelles Kongoko* elkartearentzat. eLankidetzak-Garapenerako Lankidetzako Euskal Agentziak, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailaren parte dena, Afrikako Aintzira Handietako Eskualdean emakumeek bakean eta segurtasunean duten parte-hartzea indartzen lagunduko du.

Aintzira Handien eskualdeko gatazkak Afrikako honako herrialde hauek inplikatzeko ditu: Kongoko Errepublika Demokratikoa (KED), Ruanda, Uganda eta Burundi. Gatazka hori gizateriaren tragediarik handienetariko bat bihurtu da, eta Europar Batasunak ahaztutako krisitza jotzen du. 1994tik, milioika pertsona hil dira, gehienak zibilak, eta, aurten, ia milioi erdi iheslari hartu ditu KEAK, Errefuxiatuentzako NBERen Agentziaren (ACNURen) arabera. Gatazkaren ondorio nagusien artean honako hauek daude: baliabide naturalak arpilatzea; haurren erabilera soldadu gisa, edo emakumeen eta nesken aurkako sexu-indarkeria gerra-arma gisa.

Horregatik guztiagatik, azken hamarkadetan, hainbat erakundek, Nazio Batuek edo Afrikako Batasunak kasu, gatazkak kudeatzeko funtsezkoak diren ebazpenak bultzatu dituzte, non nabarmentzen den emakumeen papera.

Synergie des femmes pour les victimes de violences sexuelles elkarteak 35 erakunde batzen ditu eta 2002an sortu zen eskualdean sexu indarkeriaren biktima diren emakume eta gazteen alde borrokatzeko. Proiektu horrekin, *Synergie* beste bost erakunderekin batera arituko da emakumeen ahalduntzea sendotzen, batez ere landa eremuko emakumeena, eta sustatzen haien herrialdeetako bake prozesuetan parte har dezaten.

2018an, eLankidetzak dirulaguntza bat eman zion erakunde berari emakumeak sentsibilizatzeko eta tokiko sei hizkuntzatan materialak prestatzeko. Proiektuaren bi urteetan ia 39.500 pertsonak parte hartu dute.

Nazioarteko Bake Brigadak

Era berean, Gobernu Kontseiluak onartu du eLankidetzak emango duen bigarren dirulaguntza; 150.000 eurokoa izango dena eta Nazioarteko Bake Brigadei zuzenduta egongo dena. Ekarpen horrekin, nazioarteko sare horrek Mexikoko, Guatemalako, Honduraseko, Kolonbiako eta Kenyako giza eskubideen defendatzaileak babesteko ditu nazioarteko komunitatean intzidentzia politikoa eginez.

Nazioarteko Bake Brigadak 1981ean sortu ziren indarkeria-ezaren filosofia sustatzeko eta giza eskubideak babesteko. Bere lana oinarritzen da giza eskubideen alde lan egiteagatik jazarpena eta mehatxuak pairatzen dituzten pertsonen eta erakundeen babes integralean.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

EUSKO JAURLARITZAK MEMORIA HISTORIKOA BERRESKURATZEKO TOKIKO PROIEKTUAK DIRUZ LAGUNDUKO DITU

Eusko Jaurlaritzak, Gogora Institutuaren bidez, 137.500 euroko laguntza emango du EAEko udalerriek eta gainerako toki-erakundeek memoria historikoa berreskuratzeko proiektuak egin ditzaten.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburu Beatriz Artolazabalek Gobernu Kontseiluari helarazi dio Gogora Institutuak kudeatuko dituen dirulaguntzen deialdia, memoriaren eta demokraziaren aldeko borrokaren tokiko ikerketa berreskuratu eta bultzatzeko proiektu espezifikotarako. Era berean, Gogora Institutuaren ebazpenak barne hartzen ditu Memoria Historikoaren ibilbideak konfiguratzeko eta sinbologia frankista kentzeko jarduketak.

Eusko Jaurlaritzak memoria berreskuratzeko eta kontserbatzeko politika publikoa egiten du. Gerra Zibilaren, diktadura frankistaren, ETAren eta eskuin muturreko beste talde batzuen eta GALen terrorismoaren, eta legez kontrako polizia-indarkeriaren ondorioz 1936tik Euskal Autonomia Erkidegoan izandako gertaera traumatikoen biktima guztien — eta hauekin batera euren senitartekoena— oroimena ohoratzea eta berreskuratzea da helburu nagusia.

Memoria historikoa berreskuratzeko proiektuak egiteko dirulaguntzak irailaren 8ko EHAAn argitaratzea aurreikusi da. Egun horretatik aurrera, udalerrri eta erakunde interesdunek hilabete izango dute euren eskabideak aurkezteko.

Kultura eta Hizkuntza Politika

“EUSKADIKO JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN LEGE PROIEKTUA” ONETSI DU GOBERNU KONTSEILUAK

- Arau berriak jarduera fisikoaren eta kirol-sektorearen oraingo premiei erantzun nahi die
- Testuak kirol inklusiboago bat bultzatzeko premia jasotzen du, non herritar guztiek, 0 urtetik hasita, lekua izan dezaten eta ohitura hauek transmititu daitezten: errespetua, tolerantzia eta joko garbia

Gobernu Kontseiluak "*Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolaren Lege Proiektua*" onetsi du gaur, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoa eta kirola sustatzeko eta arautzeko aukera emango duena.

Lege berri honek esparru juridiko berri bat emango die jarduera fisikoari eta kirolari, Kirolaren 14/1998 Legea, ekainaren 11koa, bi hamarkadatik gora indarrean egon ondoren. Hala, arau berri honek islatu egingo ditu urte hauetan guztietan jarduera fisikoak eta kirolak izan dituzten aldaketak, eta haien oraingo erronkei eta premiei erantzun die. Arau berri honek 15 titulu, 16 xedapen gehigarri, 4 xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile 1 eta 3 azken xedapen biltzen ditu, eta Gobernu Kontseiluak "*Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolaren Lege Aurreproiektua*" onetsi ondoren, Legebiltzarrari igorriko zaio eztabaidatu eta onetsi dezaten.

